

# **XVII- XVIII. MENDEETAKO BAZTANGO GOI-MAILAKO GIZARTEAREN ETXEBIZITZA TIPOLOGIA**

Egilea: Josune Berho Goñi

Gradua: Artearen Historia

Ikasturtea: 2014/2015

Tutorea: Maria Jesus Pacho Fernandez

Jakin arloa: Arkitektura

## LABURPENA

Baztango bailaran, etxebizitza arkitekturaren baitan goi-mailako arkitektura interesgarria bereizten da. Aipatzeko, arkitektura erlijiosoaren aldean, denbora luzean arkitektura zibilak ez du ikertzaileen artean horrenbesteko interesik sortu, eta are gehiago jauregi arkitekturari dagokionez. Arrazoi nagusi bat dokumentu eta informazioa bilatzeko dauden zailtasunak izan daiteke baina baita patrimonio honekiko dagoen sentsibilizazio falta, arkitektura erlijiosoarekin konparatuz gero, tradizionalki bigarren kategoriakoa kontsideratu baita. Hau dela eta, hutsune bibliografiko bat egon da baina poliki-poliki etxearen inguruko monografia eta artikulu espezializatuak agertzen hasi dira. Argitalpen zaharrenek batik bat, eraikuntza hauen aspektu morfologiko eta formalak aztertzen zituzten. Gaur egun ordea, artearen historiak ekonomia, politika, hezkuntza, soziologia bezalako aspektuak aztertuz ikerketa hauek osatzen hari da. Baztango kasuan Pilar Andueza Unanuaren ikerketa lanak azpimarratzekoak dira. Pilar Anduezak dion moduan; *resulta difícil entender una casa o un palacio en su totalidad sin analizar a sus moradores, las circunstancias que le rodearon, así como sus modos de vida. Estos nuevos aspectos antropológicos y etnográficos que nos adentran en los usos, las costumbres, las modas y las ideas, resultan en la actualidad no sólo novedosos sino también complementarios respecto a los estudios tradicionales* <sup>1</sup>.

Baztanen emandako migrazio mugimendua, herritarren diru lorpenaren eta Baztango patrimonio aberatsaren iturri nagusia izan zen. XVII eta XVIII. mendeak funtsezkoak izan ziren migrazioari dagokionez, izan ere, goi mailako gizarteren gailentze ekonomiko eta soziala suposatu zuen. Gertaera honen adierazpen argiena jauregiak izan ziren. Gailentze ekonomiko honek arkitekturaren garapena eragingo du, nibel handiko etxebizitzak bultzatuz. Tamaina handiek, monumentaltasunak eta plastizitateak jabearen fama justifikatu dute. Beraz, lan honen bidez, konturatuko gara mende hauetan jauregi tipologia berri baten agerpena emango dela.

---

<sup>1</sup> ANDUEZA UNANUA, P., “La arquitectura señorial de Navarra y el espacio doméstico durante el Antiguo Régimen”, GARCIA GAINZA, M.C., FERNÁNDEZ GRACIA R, (kor.), *Casas señoriales y Palacios de Navarra*, Pamplona, Universidad de Navarra, 2009.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	4
2. Metodologia .....	5
3. Kokapen geografiko eta kronologikoa .....	8
4. Habitaziorako goimailako arkitektura. XVII-XVIII mendee artean .....	10
4.1. Identifikazio soziala .....	11
4.2. Tipologia eta funtzio nagusia: <i>Habitazioa</i> .....	14
4.3. Lengoai arkitektonikoen berrikuntza. Forma eta kode estetiko berriak .....	17
5. Jaroa Jauregia .....	21
6. Konklusioak .....	24
7. Irudiak .....	27
8. Bibliografia .....	31

## 1. SARRERA

Nafarroako udalerrri zabalena den Baztango bailara, baita hidalgo eta indianoen lurraldea bezala kontsideratu eta izendatzen dena, oso garrantzitsua eta interesgarria da esparru askotan. Arkitekturaren alorrera hurbilduz errealitate aberats bat aurkitzen da eta batez ere etxebizitza arkitekturari dagokionez. Elementu mota honen abaniko zabal bat dago. Besteen artean, jauregi kopuru handiak edertzen du bailara hau eta tipologia honen barruan ere aberastasun eta barietate oparo bat azpimarratu behar da.

XVII. mendearen erdialdetik XIX. mendearen hasierako hamarkada bitartean, bailarako bizi baldintzak gogorak izan ziren. Lurraldeak eskaintzen zuen ekoizpen eta baliabide mailaren aurrean tokiko populazioa handiegia zen. Horrek migrazio mugimendu bizia bat eragin zuen, herritarrek beren sortetxeak eta jaioterria uztera behartuak egon zirelarik. Ameriketara (Indiak), Madriden eta Cadizen ezarri zen imigrante talde hauen artean, egon ziren bakar batzuk dirutza egin eta prestigio handia lortu zutenak. Horrela, Baztango zenbait familiek gailentze sozial bat bizi izan zuten eta ospe eta aberastasun horren adiera-modu material zuzenena beraien etxebizitza izan zen.

Beraz, gizarte talde honek eskuratutako ondasun ekonomikoa bere jaioterriko etxebizitzarako erabiliko du. Etxaldea guztiz berreraikiko du eta zenbaitetan ere planta berriko eraikinak egingo ditu bere *habitaziorako* estatus hori argi eta garbi islatuz. Ondorioz, XVII eta XVIII. mende hauetara mugatutako jauregi tipologia berri eta aurrerakoi bat agertuko da.

Gai honekiko interesa piztearen arrazoiak bat baino gehiago dira. Alde batetik, etxebizitza arkitektura, atentzioa erakartzen didan arloa da. Bestetik, Baztango bailarak dauzkan alde erakargarrien artean, arkitekturaren arloa nabarmendu beharreko da. Arkitekturaren bereizgarritasuna hainbat aspektuk ahalbideratzen dute, baina begi-bistara ikusgarriak diren ezaugarriak; monumentaltasuna eta tamainaren handitasuna dira. Modu honetan, Baztangoa izanik nire inguruan aurkitzen den ondare artistiko honetan murgiltzeko nahia neukan. Hau horrela izanik, modu honetako lan bat aitzakia egokia da buruan neukan azterketa nahi horri benetako bultzada emateko.

## 2. METODOLOGIA

Arkitektura arlo honen baitan, garai, baldintza fisiko eta gizartearen behar desberdinak direla eta, etxebizitza barietatea emango da. Modu honetan lurralde berdinean elkarloturik tipologia desberdinak aurkituko dira. Horien artean, baserriak, nekazari etxaldeak, dorretxeak eta nik aztertuko ditudan jauregiak daude.

Baztango bailaran, jatorri eta forma desberdineko jauregi kopuru handiarekin egiten dugu topo, izan ere, Baztan hamabost herrik osatzen dute eta ia gehienetan daude jauregi bezala kontsideratutako etxebizitzak. Baina horrelako errealitate baten aurrean informazio zehatzaren hutsune bat dagoela esatera ausartuko nintzateke.

Bibliografia eta iturriei dagokionez, hauen bilatzea ez da lan erraza izan eta lana burutzeko baliabide desberdinak maneiatu behar izan ditut. Dokumentazioaren aldetik, XVII- XVIII. mendeetako arkitektura izanik, garaiko arkitekturari lotutako dokumentu motak besteen artean testamentuak, obra kontratuak, salerosteko dokumentuak dira. Hau da, orokorrean notario protokoloak dauzkagu iturri dokumental nagusia. Beraz, aipatzekoa da, Archivo Histórico de protocolos notariales<sup>2</sup>. Baztango bailarari buruzko dokumentuak aurkitzeko, Iruñako merindadeko dokumentuetara jo behar da, hor aurkitzen baitira bailarari buruzko dokumentu desberdinak. Aipagarria da ere, MUÑOZ JIMÉNEZ, J.M., “El protocolo notarial como fuente para la Historia del Arte”, *La investigación y las fuentes documentales de los archivos::[I y II jornadas sobre investigación en archivos]*, Vol. 1, Guadalajara, 1996.

Modu honetan, Baztango dokumentazio historikoaren egoitza nagusiak tokiko udal artxiboa eta Iruñako Artxibo Historikoa dira.

---

<sup>2</sup> “El Archivo Histórico de Protocolos Notariales de Navarra es una sección del Archivo General y Real de Navarra en el que se conserva la documentación notarial de las merindades de Estella, Olite, Pamplona y Sangüesa, puesto que la merindad de Tudela, a fecha de edición de esta publicación, no se ha movilizado. Contiene un total de 17.000 carpetas que suponen unos cinco millones de documentos, y aumenta cada año con la incorporación de los Protocolos que pasan de un siglo. Para su ordenación se ha conservado íntegra la estructura tradicional, respetándose el orden de las Merindades, que coinciden territorialmente, y manteniéndose el orden alfabético de las notarías, incluyendo en las mismas a los notarios cronológicamente ordenados. De este modo, el inventario tiene dos partes bien diferenciadas; la primera corresponde al Inventario de los Notarios del Archivo de Protocolos, con índices cronológico y alfabético, y la segunda al inventario de los libros de registro de los notarios incluidos en la primera parte, ordenados por notarías y alfabéticamente”. <http://publicaciones.navarra.es/TiendaPublicaciones/consultaPublicacion.faces?id=1296>. (Azken bisitaldia 2015.06.22)

Bibliografiari dagokionez, hasteko oso informazio interesgarria eskaintzen dute gidak, hauen artean aipatzekoa izango da 1849an argitaratutako: MADOZ, P. *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones*. Hemen Baztango haranari buruzko sarrera bat dago eta datu orokor batzuk berreskuratu daitezke honetatik. Baita interesgarria da; *Ibaiak eta haranak. Guía del patrimonio histórico-artístico y paisajístico*. Gida honek Nafarroako herritar arkitekturari eta arkitektura zibilari buruzko informazioa eskaintzen digu. Beste gida lagungarri bat ere, *Catálogo monumental de Navarra, V\* Merindad de Pamplona* da. Zehatzagoa den beste bat Agustin Otondo Dufurrenaren *Diccionario histórico biografico del valle de Baztán (Navarra)*.

Nafarroari eta Euskal Herriko arkitekturaren inguruko testu orokorrak asko daude eta zenbaitetan Baztani buruzko aipamen zehatzak daude, horregatik testu hauen azterketarekin zenbait datu interesgarri ateratzea lortu dut. Besteen artean aipatzekoa da, Alfredo Baeschlin arkitektoak Bilbon 1880an argitaratutako *La arquitectura del caserío vasco*. Ondotik Julio Caro Barojak tokiko arkitekturari buruz beste bat aurkeztu zuen: *La casa en Navarra*. Nafarroari buruzko beste bi testu orokor ondoko hauek dira, egile batzuen eskutik sortu berriak diren *El arte del Barroco en Navarra* eta honekin batera ere García Gainzaren eskutik *El arte en Navarra*, 2014ean hain zuzen ere.

Monografiak Baztango liburutegi publikoan eta Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegian eskuratu ditut, naiz eta Baztango jauregia aztertzen dutenak gutxi izan. Jose Maria Igoa Morenok *Arquitectura popular vasca : (Baztán-Bidasoa)* monografia aurkezten digu. Honek arkitekturaren panorama orokorra aurkezten du eta nolabaiteko hurbilketa bat egiteko lagundu nau eta gehienbat jada lehendik neukan ezagutza ziurtatzeko. Ereduzkoa den beste monografia bat; Pilar Anduezaren, *La arquitectura señorial de Pamplona en el siglo XVIII, familias, urbanismo y ciudad*. Iruñako egoera lantzen da, baina aspektu batzuk Baztango kasuan aplikagarriak dira.

Nahiz eta jauregi arkitektura aztertzen duten idatzi askorik ez egon Baztango bestelako esparruen inguruko monografia zerrenda interesgarria badagoela esan behar da. Horien artean aipagarriak dira, Alejandro Arizcun Celaren *Economía y sociedad en un valle pirenaico del Antiguo Régimen: Baztán 1600-1841*. Baita 1985eko Julio Caro Barojaren, *Hora Navarra del XVIII*. Monografia honen protagonisten artean baztandar asko aurkitzen dira. Azkenik aipatzeko, Juan de Goyenechek 1685 urtean argitaratutako *Executoria de la nobleza, antigüedad y blasones del valle del Baztán*.

Bestetik, artikulu akademikoak ere zuzeneko informazio interesgarria ematen dute. Cuadernos de la Cátedra de Patrimonio y Arte Navarro bildumak testu interesgarriak eskaintzen ditu, hauen artean 2009an agertu zen *Casas Señoriales y Palacios de Navarra-ri* buruzko testua, non idazle desberdinek eginiko artikuluak aurki daitezke. Baztango arkitekturaren inguruan eredugarria den beste artikulu bat Pilar Anduezaren “La casa, la familia y los negocios en el siglo XVIII. Los Borda de Maya (Baztan)”<sup>3</sup>. Idazlan zehatz bat da, Baztango familia baten kasua aztertzen duena.

Bibliografiaz gain, sarean ere web orri desberdinak daude praktikoak direnak. Baztango udaletxearen web ofizialean<sup>3</sup>, herri bakoitzaren azalpen laburrak daude eta arkitekturari tartetxo bat eskaintzen diote herri bakoitzeko jauregi eta etxe bereziak azpimarratuz. Baita, bideo batzuetan Baztango arkitekturaren egungo eta antzinako argazkiak ikusteko aukera dago<sup>4</sup>.

Bukatzeko, ahozko iturrietara ere jo dut informazio bilatzerako momentuan, Baztango pertsona desberdinekin hitz egiteko aukera izanik. Honekin batera, jauregiak ezagutzeko landa azterketaz baliatu naiz eta lanean jarritako argazki asko pertsonalki ateratakoak dira. Tipologia honetan txerta daitezkeen jauregiak hamazazpi dira (irud.1) osotara eta Baztango herri desberdinetan banaturik aurkitzen dira, horien artean aipatzekoak dira, Askoa eta Jarola (irud.10) jauregiak Elbeten, Almandozko Galtzaga jauregia, Elizondoko Arotzarena eta Datue (irud.9) jauregiak, Erratzuko Iñarbilgo jauregia, Zigako Egozkue jauregia etab. Zenbait jauregi oso errestauratuak daude, hala nola, Almandozko Galtzaga gaur egun ostatu da eta modu berean Amaiurko Borda ere hotel bat daukagu. Beste batzuetarako sarbidea debekatua dago, beraz hau dela eta behaketa pertsonal baten bidez eta bibliografia eta sarean aurki daitezkeen argazkien bidez lortu ditut irudiak.

Baztango bailaran jauregi kopuru handia dago izendapen hori hartzen duena. Talde honen baitan tipologia bereizgarri bat bereiz daiteke, eraikin gutxieneko batek osatzen duena. Hiztegiaren arabera, zientzia edo bestelako jakintza-alor batean, ezaugarri komunak dituzten mota edo ereduak bereiziz eginiko sailkapena litzateke

---

<sup>3</sup> <http://www.baztan.eus/es/> ( azken bisitaldia 2015.06.22)

<sup>4</sup> <https://www.youtube.com/watch?v=cwqpXrIEODk> eta <https://www.youtube.com/watch?v=Kf-xAcaII6s> ( azken bisitaldia 2015.06.22)

tipologiaren definizioa. Tipologiaren eremuan, kanonikoa da Nikolaus Pevsner-ek idatzitako monografia.<sup>5</sup>

Ildo kontzeptualaren harira, orokorreko jauregi tipologia horretan eraikinak txertatzeko kontuan hartzen diren irizpideak zeintzuk izan ahal diren zehaztu ditut, kasuan kasuko berezitasunak izan ahal direlarik. Hiru dira aspektu azpimarragarrienak. Batetik, kokapena dago, hau da, herrian bertan edo herritik hurbil egotea. Bestetik, erregeak baieztatu eta emandako titulua izatea, ze garaiko etxalde askoren jauregi izendapena erregearen balioespenagatik zen, honi egindako mesederen batengatik lortutakoa. Hirugarrenik, denek daukate armarrria. Zenbaitetan forma berezi eta monumentalak aurkezten dituzte, naiz eta ezaugarri honekin denak ez datozen bat. Beraz, funtzioa, estetika, forma moduko aspektuak bigarren maila batean geratuko ziren identifikazio tipologiko orokor hau egiterako momentuan. Hau kontuan izanda, jauregi hauen artean tipologia desberdinak bereiz daitezke eta nik bereizgarria den multzo bat da mugatuko dutena, bereziki jauregi izendapen hori emango diotelarik. Mugatutako tipologia honetako jauregiek, denek komunean dituzten ezaugarriekin betetzen dute, hau da, kokapenarekin, jauregi tituluaren jabetzarekin eta armarrria edukitzearekin. Baina tipologia hau bereziki bereizgarri izatea eragiten duten irizpideak identifikazio soziala, funtzioa eta lengoai arkitektoniko dira.

### **3. EREMU GEOGRAFIKO ETA KRONOLOGIKOA**

Baztan Nafarroa iparraldean dagoen bailara zabal eta menditsua da. Udalerri honek muga egiten du iparraldean Frantzia, Urdazubi eta Zugarramurdirekin, ekialdean Frantziarekin, hegoaldean Kinto Real, Erreguerena, Lanz, Anue eta Ultzamako mendi komunalekin eta azkenik, Mendebaldean, Donamari, Bertiz-Arana, Etxalar eta Frantziarekin.

Bailara hau hamabost herrik osatzen dute, hegoaldetik iparraldera (irud.1): Almandoz, Berroeta, Aniz, Ziga, Oronoz, Arraioz, Irurita, Gartzain, Lekaroz, Elizondo, Elbete, Arizkun, Azpilkueta, Erratzu eta Amaiur. Udaletxe bakarra dago herri guztiak biltzen dituenak eta hau Elizondon kokatzen da. Aipatzekoa da baita, herriak lau kuarter historikotan banatzen direla: Basaburua (Almandoz, Berroeta, Aniz, Ziga), Erberrea (Ornoz, Arraioz, Irurita eta Gartzain), Elizondo (Lekaroz, Elizondo, Elbete) eta

---

<sup>5</sup> PEVSNER, N., *Historia de las tipologías arquitectónicas*, Barcelona, GG, 1979.



Baztangoiza (Arizkun, Azpilkueta, Erratzu eta Amaiur).

Arkitekturaren alorrera hurbilduz, aipatu bezala lurralde honetan etxebizitza barietatea ematen da, baserriak, nekazari etxaldeak, dorretxeak eta jauregiak azpimarratu behar direlarik. Denek dute armari bera, eta guztiak dira, jatorriz, aitonen seme-alabak; hau da, nobleak, berezko noble izaera duen lurralde batean sortu izanagatik. Gainera, Baztan leinu ilustratuen bailara eta bizitoki garrantzitsu bat izan da. Familia horien artean aipatzekoak dira, Ursua familia, Jauregizar, Goyeneche, Muzquiz, Mendinueta, Azpilcueta, Iturbide, Iriarte eta Iturralde adibidez. Horrela izanik, etxebizitza guzti hauen artean jauregi izendapena hartzen duten eraikin ugari daude. Testuinguru honetan, XVII eta XVIII. mendeak muga kronologiko erabakigarriak dira.

Bailara honetan tradizio arkitektoniko indartsu bat ematen da. Baztandar nekazal gizartearen etxebizitza zaharrena baserri exentua da. Herritar hauen bizimoduak eta izaera xumeak arkitekturaren forma eta material sinpleen erabilera justifikatzen du. Lurralde hauetatik inoiz atera gabeko biztanleak bere lengoai eta forma propioak garatuko ditu. Modu honetan oparotasun gabeko etxebizitza funtzional eta praktikoak eraikiko dituzte. Baserri exentua izango da ondotik agertuko diren bestelako etxebizitzaren eredu, beraz, tradizioaren izaera mendeetan zehar bizirik iraungo du, ondotik agertuko diren eraikinengan eragin nabaria izanik. Eraikinen artean bakoitzak berezitasun propioak izango ditu, hala nola, tamainari, materialen distribuzioari, jabearek dagokionez baina tradizioaren karga berebizikoa izango da. Aipatu bezala, XVII eta XVIII. mendeetan egoera berri baten agerpena emango da. Eragile desberdinen ondorioz, migrazio mugimendua oinarri eta bultzatzaile nagusia izan zela kontuan hartuta, tradizio horretatik urrundu ziren forma arkitektoniko berriak agertuko dira. Migratutako herritar taldearen artean bakar batzuk bereizi egingo dira jasoko duten aberastasunagatik eta pentsamolde berriak bereganatuko dituztelako. Beraz, XVII. eta XVIII. mendeetan goi-mailako gizartearen eskutik, Baztango bailara honetan jauregi tipologia berri bat agertuko da garaiko bestelako etxebizitza arkitekturarekiko bereizgarria izango dena.

#### **4. HABITAZIORAKO GOIMAILAKO ARKITEKTURA. XVII- XVIII. MENDEEN ARTEAN**

Jauregi tipologia honetan barneratu baino lehen lehendik jada aurkeztutako Baztango etxebizitza arkitekturaren inguruan ibilaldi labur bat egitea beharrezkoa da, horrela testuinguru egokian kokatzeko. Aipatu bezala, haran honetako tradiziozko arkitekturaren eredu eta oinarria baserriak dira. Bi baserri bereiz daitezke, baserri exentua eta herri nukleoko baserria. Landatar baserri exentua da Baztan eta baita Euskal Herri arkitekturaren oinarri nagusia. Baserri honen garapenaren ondorioz, herri nukleoko baserriak, nekazal etxaldeak, jauregiak ... agertuko dira. Baserri hauek nekazariak aziendaren zaintza denboretan euria eta hotzetik babesteko eraikitzen zituzten txabolak izan zituzten eredu. Hauek harrizko murrak (askotan erreketako harri txiki eta irregularrez osatutakoak) eta egurrezko estalkiak txapa edo harrizko xaflekin babestuak izan ohi zituzten. Poliki-poliki eraikin hauek tamainaz handitzen joan ziren, bizidunaren beharretara egokituz eta horrela gaur egun ezagutzen ditugun baserrien forma eta dimentsioetara igaroko dira. Paisaian guztiz integratutako arkitektura, inguruak berak eskaintzen dituen materialak erabiliko baitira eta oso arkitektura praktikoa zen. Bizitzarako espazio txikia, ukuilua eta biltegiak osatzen zuten. Bi hiru solairukoak izan ohi ziren eta mendialdean kokatzen ziren. Ondoren, erdi arotik aurrera, herritarrek mendian islatua ez du bizi nahi izango eta herrietara hurbiltzen hasiko da, bertan eraikiz beraien baserriak. Hauek aurrekoen eragin garbia izango dute, aldaketa gutxi emango direlarik. Baserria izango da arkitektura tipologia nagusia. Nekazal etxaldeak ere herri nukleoan garatuko dira. Forma eta egitura tradizionalak jarraituko dituzte baina tamainaz handituko dira eta askotan jauregi izaerako etxebizitza monumentalak izango dira. Emigrazioaren bidez lortutako diruarekin edertu egingo dira.

Bestalde, goi mailako arkitekturara bideratuz, tradizioaren bidea jarraituz XIII. mendetik aurrera goi-mailako gizartearen eskutik dorretxeak eraikiko dira, funtzio nagusia bandidajetik eta leinuen arteko borroketatik babestea izanik. Bestalde Baztango kasuan gaztelu baten aipamena egin daiteke, egun kontserbatzen ez dena baina garrantzi handikoa izan zena, Amaiurko gaztelua. Azkenik, jauregiak ere bereizi behar dira<sup>6</sup>. Talde honen artean baserriaren arkitektura jarraitzen dutenak badaude naiz eta elementu

---

<sup>6</sup> Arkitektura tipologia hauen bereizketarako lagungarria izan da ondoko monografia IGOA MORENO, J.M., *Arquitectura vasca: (Baztán-Bidasoa)*, Irun, 2008.

berriak ere atxikitzen dituzten; egurraren lanketa, armarriak, sarreraren monumentalizazioa etab. Azken finean, goi mailako arkitekturaren baitan aldaketa bat antzeman daiteke, XVII. mende erdialdetik aurrera emango dena, izan ere, izaera aurrerakoia erakutsiko duten jauregi monumentalak eraikiko dira. Ordu-arte zeuden herri arkitektura eta jauregiekiko era nabarmen batean bereiziko dira. Eraikuntzaren fintze bat eta materialen aberastasuna erakutsiko dute.

Tipologia honen bereizgarritasuna markatzen duten irizpide nagusiak, identifikazioa soziala, funtzio *habitacionala* eta lengoi arkitektonikoaren apartekotasuna dira. Goi-mailako pertsonaien indarra, funtzioak erakusten duen aldaketa eta bide berrien aurreikuspena eta arkitektura edertua dira azpimarratu beharreko kontu garrantzitsuak.

#### 4.1 IDENTIFIKAZIOA SOZIALA

Identifikazio sozialari dagokionez, jauregi tipologia honen nagusi eta bultzatzailea goi mailako gizartea izango da.

Antzinako erregimeneko Baztango bailaran emandako mugimendu migratzailea ezaguna da. Nekazaritzaren produkzioaren ahalmen eskasa eta lurralde hauetako familien ondasuna transmititzeko sistema, hau da, oinordeko bakarrarena <sup>7</sup> dira immigrazio honen bi eragile garrantzitsu. Hauen artean Mundu berrira (Ameriketara) doan indibiduoaz gain, garai modernoko Nafarroan, beste imigrante mota bat dago. Ez da irteera indibidual bat soilik izango, jaioterritik abiatzeak konpromiso familiar bat suposatzen du. Behar ekonomikoagatik soilik mugitzen den emigrantearen irudi klasikotik aldentzen da. Bidaiari moderno hau askotan monarkiako beste erreinuetara joango da eta ez herrialde ezezagun eta “arraroetara”. Beraz, zenbaitetan seme hauek naiz eta jauntsik gabe gelditu, familiaren laguntza ekonomikoarekin kontatuko dute bere etorkizuna ziurtatzeko<sup>8</sup>. Horrela, arrazoi eta irteera mota desberdinak egongo dira XVII eta XVIII. mendeetan eta bakoitzaren lorpenen artean ere aldeak egongo dira.

---

<sup>7</sup> Lurralde etaazienda guztia etxaldera zeuden loturik eta dena zen seme bakar batentzat, besteak kanpo gelditzen zirelarik, zera azaltzen da ARIZCUN CELA, A., *Economía y sociedad en un Valle pirenaico del Antiguo Régimen Baztán 1600-1841*, Pamplona, 1988.

<sup>8</sup> ARAMBURU, J.M., “Familia, paisanaje y conciencia étnica en la emigración navarra a América (siglos XVI y XVII)”, IMIZCOZ, J. (zuz.) *Redes familiares y patronazgo; Aproximación al entramado social del País Vasco y Navarra en el Antiguo Régimen (siglos XV-XIX)-an*, Bilbao, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2001, 161-174 orr.

Baztandar herritar migratzaile gehienek helburua, ahalik eta azkarren irabaziak lortu eta jaioterrira itzultzea zen. Betiko moduan salbuespenak egongo dira eta bakar batzuk beraien tokia eta bizia lurralde berri horietan ezarriko dute, aberastasun ekonomiko garrantzitsuak lortuz. Hauek ondorengoentzat ezinbesteko zutabeak izango dira. Familiako gainerako kideak kanpora joateko erabakia hartuz gero, helmugari dagokionez segurtasuna izango dute, ze jada ez dira zeharo ezezaguna egingo zaien esparru batean ezarriko. Kasu askotan, gurasoek hezkuntza bat jasotzeko helburuarekin beraien semeak kanpoan ezarritako familiarren etxeetara bidaliko dituzte eta hauek arduratuko dira gaztearen behar guztiez. Segurtasun hau ez da soilik fisikoa izango, baita afektiboa eta kulturala ere (gazte bidaiaria familiar batekin harremanetan egoteak, atzean utzi duenarekiko oroimena izatea eragingo baitio). Eragin eta laguntza modu hau familia esparrutik harago ere joango da hainbat kasuetan. Harremana duten famili desberdinen artean emango da eta horien hurbileko pertsonak ere probetsua atera zezaketen egoera eta kondizio horretatik. Modu honetan, erlazio kate luzek hedatuko dira.

Helmuga aipagarrienak; Indiak, Madrid eta Cadiz izan ziren. Gorteko, ejertzitoko eta elizako kargu garrantzitsuak bete zituzten. Baztandarrek Madrilen hartuko duten lekua azpimarratzeko kontua da. XVII. mendetik aurrera Baztango familia akomodatuenean helmuga garrantzitsu bat izango da. XVIII. mende hasieratik nafar ugarik eta batez ere Baztango askok, bizkaitar, gipuzkoar eta arabarrekin batera goratze politiko eta ekonomiko bat ezagutuko dute, Borbondarren erreinuarekin bat egingo duelarik. Goraldi honen jatorriari buruz ez dago jakintza askorik. Baztandarren kasua da sakonen aztertutakoa, Caro Barojaren *Hora Navarra del XVIII* eskutik. Gertakari honek Carlos II.aren denboretan izan zuen bere funtsa. Antzinako nekazari etxaldeek ondorengoak ziren merkatari eta negozio gizon taldeak agertu ziren, Penintsulako eta Ameriketako komertzioan jardun zutenak. Hauek denborarekin erregeren konfiantza eskuratu eta finantza errealetan eskua sartzea lortu zuten. Hauek irekiko dituzte ateak ondoren iritsiko diren beste baztandarrei. Izan ere, pertsonai hauek bere hurbilekoak zirenei lanpostu desberdinak lortu zizkieten<sup>9</sup>.

Modu honetan, administrazioko kargu altuetan euskaldun eta nafar asko egongo dira, baztandarrak azpimarratu behar direlarik, Caro Barojak esango duen moduan.

---

<sup>9</sup> GARCÍA GAINZA, M.C. eta FERNÁNDEZ GRACIA, R. (ed.), *Juan de Goyeneche y el triunfo de los navarros en la monarquía Hispánica del siglo XVIII*, Madrid, Fundación Caja Navarra, 2005.

Beraz, XVIII. mendean Borbondarren monarkian baztandar gizon taldeak nabarmenduko dira, hala nola, Goyeneche, Iturralde, Astrearena, Mendinueta, Gaston de Iriarte. Hauen arteko erlazioek eta ondorengo jarraipenaren bidez, Espainiako kapitalismoaren zutabe garrantzitsuan bilakatu ziren<sup>10</sup>. Pertsonai hauek beraien aberastasuna hornitzeaz gain, herrian aurkitzen zen familia laguntzeaz arduratzen zen bere dirutzaren parte kontsideratuz. Diru laguntzak ohikoak eta jarraiki bidaltzen zituzten eta jarduera desberdinetako erabiltzen zen, hala nola, semeen hezkuntzarako, neskak komentuetan sartzeko ordaindu beharreko sarrerarentzat, zorrentzat, etxeak konpondu eta berreraikitzeke etab. Izan ere, XVII eta XVIII. mendeetako fenomeno honetako pertsonai asko nekazari etxe sinpleetatik etorri ziren eta gertakari honek benetako igoera suposatu zuen eta oso pertsonai aberats eta boteretsuak bezala itzuli ziren zenbaitzuk Baztango bailarara. Aipatzeko, botere eta ohorearen sendotzean, ezkontza estrategikoek berebiziko garrantzia izango dutela.

Famili hauen boterea bailaran modu askotan irudikatu zen; materialki eta baita sinbolikoki ere. Arrakastaren errepresentazio material bikainena jatorrizko etxearen jasotze fisiko eta sinbolikoa izan zen. Monarkian nabarmendu zirenen helburu nagusia etxeen berritzea izan zen, bolumen handiagoa, altura gehiago eta dotoretasuna izanik xede nagusienetakoak. Eraikin inportanteetan bilakatu nahi zituzten jabearen prestigioa azpimarratzeko. Talde honek poliki-poliki lurraldeak eskuratu zituen, dolareak eta labeak egin zituen, ezkontza jai ikusgarriak antolatu zituen etab. Azken finean, goi mailako bizimodu bat hartu zuen eta hori da komunitatean erakutsi nahi zuena. Aipatu bezala, eraikinaren bidez erakutsiko dute beraien ondasun garrantzitsua, jauregi tipologia berri bati ateak irekiz.

Madrilen bertako bizimodu eta arkitektura kultuaren formak eta ezaugarriak bereganatuko ditu eta hein batean hau bere izaeraren parte bilakatuko dute. Noski, pertsona hauen barrualdean beti geratuko da alde basatia lurralde menditsu batekin bat egiten duena. Hala ere, bere jatorrizko etxe berreraiki hauetan kanpo influentziaren presentzia azpimarra daiteke. Gizarte talde honek eraikiko duen elementuak hiri jauregiaren tipologiarekin nolabaiteko erlazioa izango du. Beti ere, jauregi urbano eta

---

<sup>10</sup> IMÍZCOZ, J. eta GUERRERO, R., "A escala de Imperio. Familias, carreras y empresas de las elites vascas y navarras en la Monarquía borbónica", IMÍZCOZ, J., (zuz.), *Redes familiares y patronazgo: Aproximación al entramado social del País Vasco y Navarra en el Antiguo Régimen (siglos XV-XIX)*-an, Bilbao, Univerdidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, 2001,175-202 orr.

landatarraren artean desberdintasunak daude esparru bakoitzean emango diren faktore baldintzatzaileak desberdinak izango baitira.

Aberastasun, boterearen eta pentsaeraren maila desberdinak egon ziren eta horrek elementu desberdinak eraikitzea eragingo du. Baztanen, izaera desberdineko talde baten agerpena emango da, pentsamendua aurrerakoiak erakutsiko dituenak. Tradizioaren bidea hein batean alde batera uzten hasiko dira. Horregatik, Baztanen jauregi kopuru zehatz bat dago tipologia horrekin bat egiten duena, horien artean Arizkunenea ereduak eraikina da. (irud.3)

#### 4.2. TIPOLOGIA ETA FUNTZIO NAGUSIA: *Habitazioa*

Jauregi tipologia honen baitan aldaketa bereizgarri bat erakusten duen aspektua funtzioa izango da.

Aipatzekoa da orokorrean hitz eginez, Nafarroako etxe arkitekturaren baitan tipologia ugari eta desberdin daudela, arrazoi klimatikoengatik, lurralde bakoitzeko baldintza fisikoengatik, egoera ekonomikoengatik, bizimodu desberdinengatik, egoera politikoengatik etab. Modu berean aipatu bezala, Baztanen etxebizitza arkitekturaren baitan sailkapen bat egin daiteke. Batetik, nekazarien baserri xumeak edo *bordak* daude, Baztanen gehiengoak izango dena eta askotan herritik aldendurik mendialdean kokatzen direnak. Caro Barojak *casas dependientes* terminoa ere erabiltzen du hauek izendatzeko. Hauek kanpo konposizioaren bidez erraz identifikatzen dira, fatxada eta planta meharreko eraikinak izan ohi baitira<sup>11</sup>. Bestetik, baserri hauekin nolabaiteko harremana izanik, nekazal etxalde handiak daude, immigrazioaren ondotik lortutako aberastasunarekin tradizio popularraren bidea jarraituz asko berreraikiak izan direnak. Caro Barojak *caserios troncales o caserios fuertes* izendatzen ditu. Hauek normalean herrian bertan aurkitzen dira. Bizitzarako espazioak izateaz gain abeltzaintzarako funtzioa ere betetzen dute, hau da, etxearen distribuzioak zerikusi handia dauka animalien esplotazioarekin. Lehenengo solairu guztia adibidez, animalientzako ukuilua da eta azken solairua honen janaria eta beharrezko materiala gordetzeko espazioa izango da. Horregatik bizitzarako solairu bakarra bigarrena litzateke nahiz eta zenbaitetan hirugarren solairura ere luzatu daitekeen, eraikinak lau solairukoak badira. Askok jauregi izendapena daukate; beste ezaugarrien artean aurkezten duten

---

<sup>11</sup> CARO BAROJA, J., "Sobre la casa, su estructura y sus funciones", *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 1 (1969), 35-66 orr.

monumentaltasunagatik, hauen jabeek erreinuari eskainitako laguntza edo egindako aportazio bati esker lortutako tituluengatik, horrela jauregi posizioko eraikinak izatera pasaz. Honen erakusle da Oronoz-Mugaire herrian dagoen Arretxea jauregia (irud.4).

Bestalde, Baztanen ere dorretxe ugari daude eta orain arte aztertutako tipologiekin harremana daukate. Estetikoki tradizioaren formak eta trataerak jarraitzen dira. Etxebizitza hauen funtzioak ugariak izango dira, zeren eta, etxaldean moduan aziendarako esparruak dira eta bizitzarako funtzioa betetzeaz gain, defentsa, funtzio garrantzitsu bat izango da, egitura formalaren baldintzatzaile nagusia izango delarik. Estetikoki eraikin zorrotz eta sendoak dira (irud.2).

Modu honetan, aipatutako etxebizitza tipologia hauen artean askok jauregi izendapena eta tituluak daukate. Alde batetik, denen artean komun dauzkaten irizpideak herrian bertan edo herritik hurbil kokatzen direla, armarrria daukatela eta ordainduz lortutako tituluak direla da. Cabo de Armeria jauregiak Antzinako Nafarroako erreinuaren bereizgarri dira. Leinu zaharrenean etxalde originalek titulu hau izango dute. Leinu hauen artean gehienek jada, XIII eta XIV. mendeetarako armarrriaren arma propioak zituzten. Baina beste askok kalitate hau koroari diru kopuru bat emateagatik lortu zuten. Jauregi hauen nagusiek pribilegio asko zituzten. Tituluak ohorea ematen zien eta horrek elizan leku garrantzitsu bat edukitzeko aukera ematen zien beste hainbat gauzen artean. Baita prestigio fiskalez gozatzen zuten, hala nola, hainbat zergen ez ordaintzea, lurralde komuna aprobetxatzeko aukera bikoitza etab. Hau horrela izanik, esan daiteke askotan titulu hau ez dela eraikinen bikaintasun eta apartekotasunean oinarritzen, baizik eta, leinu baten jatorri eta buru izatean, antzinasunean eta erregeari egindako mesederen batean<sup>12</sup> (trukean pribilegioak lortuz). Bestetik, badira kasu bakoitzean bere berezitasunekin, azpimarratu beharreko kontuak, hau da, daukaten monumentaltasun eta handitasunak jauregi izaera ematen die eta hauen nagusiak ere pertsonai garrantzitsuak izan ohi dira. Jauregi multzo hauen artean badago gutxienekoak diren batzuk era nabarmen batean gailentzen direnak. Etxebizitza tipologia honen ezaugarri estilistikoek Baztango jauregi bikainenak kontsideratzea eragiten dute, bibliografia askotan ikus daitekeen moduan. Estetikaz gain badira oinarrian beste eragile batzuk gailentze hau ahalbidetzen dutenak. Aipatu bezala nik bereziki jauregi

---

<sup>12</sup> MARTINENA RUIZ, J.J., "Palacios Cabo de Armería, una peculiaridad de Navarra", GARCIA GAINZA, M.C., FERNÁNDEZ GRACIA R, (kor.), *Casa señoriales y Palacio de Navarra-n*, Pamplona, Universidad de Navarra, 2009, 39-68 orr.

izendapena hauei emango nien, hauek betetzen baitituzte jauregi batek bete behar dituen aspektuekin.

Lehen aldiz, XVII- XVIII. mendeetan Baztango bailaran *habitazio* funtzioari garrantzi handia ematen dioten jauregiak agertuko dira. Noski etxebizitza arkitektura ororen xedea familiarentzat bizi espazioa izatea da, baina jauregi hauek funtzio honekiko ulermenean eta errepresentazioan aldaketa aurkezten dute. Alde batetik, Baztango ekonomia, lurraldeak eskaintzen dituen baliabideetan oinarritzen da. Ekoizpen produkzioaren zutabeak nekazaritza eta abeltzaintza dira, abeltzaintzaren garrantzia azpimarratu behar delarik. Beraz, abereak bailarako etxe gehienek sostengu modua zen. Beraz, animaliak herritarren bizitzaren leku garrantzitsua okupatuko dute.

Animaliak hazi eta mantentzeko gunea etxean bertan kokatzen zuten, arrazoi desberdinak egon bazeudelarik, hala nola, hurbiltasunagatik, hauek ematen duten berotasunagatik etab. Beraz, aipatu bezala Baztango etxebizitzaren zati bat animalientzako zen. Baina XVII eta XVIII. mendeetako jauregi hauetan aldaketa nabarmen bat dago. Lehenengo solairuan askotan animaliak ezarriko dira, baina zaldiak soilik. Hau da, behiak, zerriak bezalako abereak etxetik kanpo aterako dira. Hauentzat jauregitik bereiziz eraikin independenteak egingo dira, komunikaturik egongo direnak baina espazio tarte bat jarriz hauen artean. Zaldia animalia noblea kontsideratzen da, horregatik bere lekua izango du jauregian bertan. Beste arrazoi bat erabilerarekin dago erlazionatua. Familiako kideen garraio-modua gurdiak ziren eta honen beharra izatean eta jabeari berehalako zerbitzua emateko, zaldiak hurbil egotea ezinbestekoa zen. Beraz, naiz eta prestigio eta aberastasun handiko pertsonaiak izan, abereekiko lotura hori zegoen baina ikusi bezala giza espazioarekiko nolabaiteko urruntzea ematen da.

Bestalde, animalien presentzia eraikinen estetikaren bidez ikusgarria da. Jauregien artean badaude tradizioari lotutako formak mantentzen dituztenak eta hauetan erraz identifikatzen da etxebizitzaren funtzio desberdinak. Baina jauregi tipologia berri hauetan beste trataera bat antzematen da. Animalia beharraren nolabaiteko disimulazio bat dago, izan ere, fatxadaren trataera finagoa eta distiratsuagoa da.

Aipatutako aberastasunaren helmuga garrantzitsuena jatorrizko etxeak izango dira. Modu honetan etxalde eta jauregi zaharkituak konpondu eta zenbaitetan guztiz berreraiki ere egingo dituzte, planta berriko elementuak eraikiz. Berreraikitze hauen bidez transformazio handia emango zaie, benetako jauregietan bilakatuz. Hau ikusita



esan daiteke, eraikinaren funtzio *habitazionalak* lehentasuna duela. Ordu-arte zeuden jauregi multifuntzionalen artean (defentsa, hazienda ...) funtzio nagusi bat izatera igarotzen diren eraikinak agertuko dira. Hiri arkitekturaren eta bizi kultuaren eragina hein batean iristen hari dela esan daiteke. Tipologia honen trataerak biztanleen bizimoduaren nolakotasuna islatzen du. Nekazari lurralde batean nagusiki bizitzarako eraikitzen den etxebizitzak jabearen ofizioari eta ekonomiari buruz datuak ematen ditu. Nekazariak ziren herritar gehienek artean merkatari eta negozio gizon taldeen existentzia erakusten du. Bizia ulertzeko modu berri baten isla da eraikuntza material eta sinboliko hau. Izan ere, jauregi hauen atzean bada pentsamendu aurrerakoi eta berri bat. Immigrazioa dela eta, talde batek kanpo influentziak jasotzeko aukera izan du eta hori bere etxebizitza eta bestelako gauzen bidez adieraziko du. Ondorengo mendeetan eraikiko diren burgesia berriaren mantsioen aurreikuspen bat eta oinarri bat dela esan daiteke.

Ilustrazioa mugimendu intelektuala da, existentzia eta gizartea ulertzeko sortuko den modu berri bat. XVIII. mendean ilustrazioaren eraginak Madrilera jada iritsiak ziren eta honek aldarrikatuko dituen ideien artean bizi kalitatearen hobekuntza egongo da. Kulturak eta arteak ere garrantzi gehiago hartuko du. Aisialdia kontzeptua ere agertuko da eta bizitzako ezinbesteko aspektu batean bilakatuko da zorientasun hori lortzeko. Madrilen nabarmendu ziren baztandarrak bertako goi mailako gizartearen inguruan mugituko dira. Hauek pentsamendu aurreratuak erakutsiko dituzte, ze mugimendu ilustratua goi noblezi eta kleroaren artean eman zen. Hori da baztandarrek jasoko dutena, zuzeneko kontaktu bat eduki baitzuten. Ideia horiek etxebizitzan bidez ikusgai egongo dira. *Habitaziorako* eraikitako arkitekturak erakusten du bizitzaren esparruak garrantzi handia daukala eta horri espazio determinatu, intimo bat eskaintzen zaio.

#### 4.3. LENGUAI ARKITEKTONIKOEN BERRIKUNTZA. FORMA ETA KODE ESTETIKO BERRIAK

Jauregi tipologia hau zehazten duen lenguai arkitektonikoa beste irizpide bereizgarri bat izango da, tradizioetik alde egiten duen moda berri baten erakuslehoan bilakatuko da arkitektura. Kultura guztietan gertatzen den moduan, eraikinen tamaina eta izaera gaitasun ekonomiko eta maila sozialaren arabera aldatuko da. Baita jakin beharreko kontua da Baztango zorioneko familia guztiek ez zutela bide eta modelo

berdinak jarraitu. Zenbaitzuk baserriaren estereotipoa jarraituko dute beraien jauregiak berreraikitzeke momentuan, bi isurialdeko eraikina, bi edo hiru solairu eta sabaia, asko ateratzen diren hegalkak eta fatxadako izkina batetik besterako balkoi luzeak.

Jauregi berri hauek bloke handi eta sendoak dira eta landa inguruan ohikoa den moduan exentuat dira. Inguruko baserrietatik gailentzen dira tamaina handiengatik eta baita fatxadan arkitektura kultuaren elementuak barneratzen dituztelako. Aurkezten dituzten plantak zabalak eta erregularrak dira eta bi planta tipo nagusi bereiz daitezke; prismatikoak lau angelukoak direnak (irud.6) eta H egiturakoak edo dorredunak, zeinak bi dorrez markaturik dauden eraikinari dotoretasuna eta edertasuna emanaz. Argien mendean egindako eraikin dorredun hauen adibide hoberenetarikoak Bidasoako lurraldean aurkitzen dira. Badago trilogia berezi bat Erratzuko Iriarte jauregiak, Iruritako Gaston de Iriartek eta Oyereguiko Reparazeak osatzen dutenak. Lau angeluko eraikinak dira, baina fatxadaren alboetan bi dorre prismatiko dituzte atxikiak, H konposizio hori hedatuz. Beheko solairua, beste bi solairu eta atikoa daukate. Pilastra eta kolomen arteko portadak ardatz zentrala markatzen du eta harrizko mentsuletan finkatutako balkoiak daude aitzinaldean aldez alde. Baztango eremuan, eskema honen garapena lehen aldiz jarraituko duena Erratzuko Iriarte jauregia daukagu, (irud.7) 1754-1755 urteetan eraikia, Pedro José Gaston Iriarteren eskutik. Etxearen oinordeko izendatu zuten eta Madriletik itzuli behar izan zuen. Orduan, nekazal itxurako etxea, gaur egungo jauregi handitsuan transformatu zuen. Hau oinarri izanda beranduago, 1765 urtean, Iruritan beste jauregi bat eraikiko da eskema berdina jarraituko duena. Gaston Iriarte edo Echeberria jauregia bezala ezagutzen da, (familia berdinekoak ziren) (irud.8). Eraikin honen inguruan Caro Barojak deskripzio hau egiten du *...un edificio muy aireoso, una casa señorial de un cuerpo con dos torres al los lados...* eta pentsatzen du eraikin hau egin zuten kanteroak kanpoko beste jauregi dorredun batzuen eraikuntzan parte hartu zutela edo behintzat ikusi, eta posible dela Nuevo Baztanekin erlazioa izatea<sup>13</sup>. Tipologia honen baitan ere eszepzio batzuk egongo dira formari dagokionez, ze egitura bereziak aurkezten dituzte. Zigan aurkitzen den Egozkue jauregiak forma desberdin bat plazaratzen du. Bi isurialdeko bloke horizontal bat da hiru solairu dituen, erdigunean dorre moduko atal zabal bat dauka eta hau alboko bi fatxadek mugatzen dute. Beste eraikin berezi bat Elizondoko Arizkunenea da, (irud.3)

---

<sup>13</sup> CARO BAROJA, J., *La hora navarra del XVIII*, Pamplona, 1985, 222.orr.

honek U egiturako etxebizitza arkitektura bat aurkezten digu<sup>14</sup>. Baztango jauregi multzo hauen artean naiz eta desberdintasun txiki batzuk egon, komunezko balio funtzional, sinboliko, propagandistiko, dekoratibo eta errepresentatzaileak partekatuko dituzte

Baztango jauregiak harriz daude eraikiak, baina bi mota bereizten dira. Harlanduzko fatxadak dituztenak eta harlan-gaitzaz osatutako fatxadak baina angeluetan harlanduaren erabilera dutenak. Harri gorriaren presentzia bertako ezaugarri bat izango da. Aipatzeko barne egitura egurrezkoa izango dela, bertako haritza erabiliko dutelarik. Beraz, inguruko materialen erabilgarritasunaz probetsua ateratzen zuten, ohiko teknika konstruktibo eta bertako klimara egokituz.

Denboran aurrera eta batez ere, XVII. mendetik aurrera jauregiak monumentalagoak eta tamainaz handitzen joango dira. Honekin batera fatxada plastikoagoak agertzen hasiko dira. Ez da kasualitatea izango, estatus ekonomikoarekin, proiektio sozialarekin eta jabearen ospearekin bat egingo baitu, horrela elementu propagandistiko batean bilakatuz.

Ordu-arte tipologiekin konparatuz fatxadek ardatz zentrala definituko duten portadak atxikiko dituzte, eraikinaren simetria markatuz. Beraz, portadak gero eta garrantzi gehiago hartuko du eta arkitektura kultuaren eraginezko elementu berriak ere txertatuko ditu, hala nola, koloma eta pilastrak. Aipatzeko, tratadistek portaden garrantziaren inguruan baieztapen desberdinak egingo dituztela. Briguz y Bru-k bere tratatuan hauxe dio *...es la puerta el primer objeto que se presenta a la vista del que entra en el edificio, adorna la fachada y ostenta la interior grandeza de la fábrica; por esta causa debe ser bien proporcionada y garbosa, no sea que tropezando en ella la vista, halle el primer objeto que correguir*<sup>15</sup>.

Fatxadako beste elementu garrantzitsu bat armarría izango da, modu ikusgarri batean anparatzen duena. Armarrí handiak kokatuko dira eraikinaren fatxadetan, ikuslearen begirada eta interesa bereganatuz. Ezinbestekoa da bai dekorazioaren aldetik baina baita honek daraman karga sinbolikoagatik. Bertako biztanlearen nobleziaren justifikapena da. Familiaren estatusa eta boterearen erakusle argienetakoa eta zuzenetakoa da. Eraikinari distira emateaz gain, monumentalizatu ere egiten du.

---

<sup>14</sup> Baztango jauregien azalpen formalak eskaitzen ditu OTONDO Y DUFURRENA, A., *Diccionario histórico biográfico del valle de Baztán (Navarra)*, Pamplona, Gobierno de Navarra, 2002.

<sup>15</sup> ANDUEZA UNANUA, P., Op. cit., 2.orr.

Hiru solairuko eraikinak dira. Espazio argitsu eta ondo aireztatuenganako gustua garatuko da gizarte estamentu honetako partaideen artean eta horrek leiho eta balkoien ugaritzea eta handitzea eragingo du. Hauek modu ordenatu eta harmoniatsu batean ezarriko dira, oreka transmitituz. Irekiera hauen agertzeak, kristalaren presentzia erakusten du eta hau garaian produktu garesti bat zen, Felipe II.aren garaian oraindik luxuzko produktu bat kontsideratzen zen<sup>16</sup>. Beraz, kristal aberastasunaren beste adierazle bat izango da. Baita nabarraren presentzia areagotuko da, dotoretasuna indartuz. Nabar lana askotan bikaina izango da, konposizio originalak sortuz eta fatxadari nolabaiteko plastikotasuna emanez.

Barrualdeari dagokionez, sarrera bat egongo da poliki-poliki garrantzi handia hartuko duen espazioa izango delarik. Eskailera zabal eta ederrekiko interesa piztuko da eta askotan eraikinaren distribuzioa honen arabera egingo da. Gizartearekiko erlazioak kontuan hartuta etxebizitzan espazio publikoak eta pribatuak bereizten dira. Batetik, saloiak, bulegoak, liburutegiak, joko gelak, sarrerak bezalako espazioak publikoak izango dira. Bestetik, elikadurarekin, etxeko lanekin, aisiarekin eta deskantsuarekin zerikusia duten guneak pribatuak kontsideratuko dira, hala nola, sukaldeak, egongelak etab. Lehenengo solairuan biltegia edo zaldientzako ukuilua egon ohi zen. Eraikinaren beste atalekin konparatuz, planta ilunagoa izango da eta baita altuagoa ere, gurdi eta zaldien sartu irteerak ahalbidetuz. Leiho gutxiago daude, horrela ere zaldiek produzitzen duten beroa gal ez zedin. Etxe honetako biztanle hau goi mailakoa da baina ohitura eta behar batzuk edukiko ditu. Baztan nekazal lurralde bat izanik, nahiz eta pentsamendu berritzaileak garatu, sakontasunean badago oinarrizko nekazal lurraldeari lotutako sentimendua.

Barrualdeko dekorazioari dagokionez, apaindura aberatsago bat agertuko da. Espazioa eskultura txikiak, koadroak, ispiluek, altzairu dotoreak apainduko dituzte, gela atsegin eta egongarriak sortuz. Beraz, ondasun material desberdin hauek espazioa dekoratu, klimatizatu eta babesten laguntzen zuten. Altzairuen artean armairuak eta komodak areagotuko dira eta zilarraren presentzia ere areagotu egingo da. Aipatzeko XVII. mende erdialdetik aurrera, bestelako lekuetako altzairuak iristen hasi zirela, Baztango gizarte honek adibidez Frantziako altzairu desente erosten zuen. Aipatzekoa

---

<sup>16</sup> ARBETETA MIRA, L., “Casa y posición social: El ajuar barroco español, reflejo de un estatus”, GARCIA GAINZA, M.C., FERNÁNDEZ GRACIA R., (kor.) *Casa señoriales y Palacio de Navarra*-n Pamplona, Universidad de Navarra, 2009,9-38 orr.

da, barrualdeko distribuzioari eta dekorazioari buruzko informazioa oso eskasa dela. Gaur egun kontserbatzen diren jauregiak askotan guztiz berreraikiak daude eta kanpoko murrak eta irekidurak soilik dira originalak. Dekorazioarekin ere berdina gertatzen da, egoera desberdinen ondorioz galduak, salduak edo suntsituak izan baitira. Letizia Arbeteta Mirak barruko ondasunen inguruko azterketa egin izan du<sup>17</sup> eta artikulua irakurriz hainbat datu atera daitezke baina Baztango kasuan aplikatzea zaila edo arriskutsua izan daiteke, ez baitago froga zehatz askorik.

## 5. JAROLA JAUREGIA

Eraikin hau XVII eta XVIII. mendeetan lehen aldiz agertuko den arkitektura kultuaren adibide adierazgarrienetakoa da. Baztanen hamazazpi jauregi daude izaera berezi honekin bat egiten dutenak eta horien artean badaude batzuk bereziki nabarmendu egiten direnak. Jarola jauregia horietako bat da (irud.10), bere lengoai apartarengatik eta baita jabearen izen garrantzitsuarengatik gailendu egiten dena, jauregi hauen errepresentazio bikainenetako batean bilakatuz. Baztango goi mailako arkitekturaren eredu bikain bat litzateke.

Jauregia Miguel de Vergarak (1637 urtean Arizkunen jaiotakoa) eraiki zuen 1674 urtean. Vergara garaiko baztandar boteretsuen arteko pertsonai nabarmen bat zen. Espainiar armadako galeonen kapitaina izan zen eta baita Santiago Habitoko zalduna. Bitartean negozio lanetan ere ibili zen. Beraz, ejertzittoa negozioekin tartekatu zuen, oso gizon boteretsua izatera iritsiz. Ameriketara, Sevillan, Cadizen eta Madrilen ibili zen, dirutza handia eskuratuz. Buenos Airesen zegoela, ahaldun baten bidez Elbeteko Jarola leinu etxea eskuratu zuen 3860 dukaten truk eta 1674an eraikin hau desegin eta egun dagoen jauregi suntuso eta monumentalera eraiki zuen.

Eraikuntzarako Juan de Gamioa kontratatu zuen eta honi eraikinak bete behar zituen zenbait ezaugarri azpimarratu zizkion kontratuan. Tamainarentzat Erratzuko Apeztegia jauregia hartu behar zuen eredu; lan moduan, harria eta forma kontuan hartuta. Datu honek erakusten du Apeztegia (irud.5) jauregia jada egina zegoela 1674rako. Bestetik, ate nagusia, solairu nagusiko leihoak eta balkoi zentrala Lesakako Urdanibia etxean parekoak izan behar ziren eta kordioak eraikitzeke berriz, Amaiurko

---

<sup>17</sup> ARBETETA MIRA, L., Op. cit., 20 orr.

Martin de Bordaren Borda jauregian<sup>18</sup>. Hala ere, datu honen inguruan baieztapen desberdin bat ere badago. Pilar Anduezak dio Borda jauregia oraindik eraiki gabe zegoela eta horregatik beste eredu bat eduki behar izan zuela Miguel de Vergarak. Martin de Bordak 1668 urtean Javierreko kondeei erositako Arraztoa jauregia izan zuela eredu pentsatzen da. Bordak eraikinean aldaketak egin zituen eta eraikin honetan solairuak banatzen dituen inposta lerro lauak ikus daitezke eta baita izkinetako forma irtenak, Jarolan antzeman daitekeen moduan<sup>19</sup>.

Jarola jauregia herrian bertan kokatzen da, baina ez kale eta plaza nagusia dauden espazioan. Elizondoko Arizkunenea jauregia adibidez, eraikin interesgarrienetakoa dena, bai kokatzen da herriaren nukleoan. Plaza nagusiaren inguruan biltzen ziren botere eklesiastiko eta zibila eta hauen artean zegoen “Gobernadoreen” jauregia bezala ezagututako jauregia, estatusaren justifikapen bikaina izanik. Jarola jauregiak inguruan lurralde zabala dauka, garaian seguruenik erabilera desberdinak izan zituelarik (baratza, lorategiak ...) baina honen inguruan ezin da ziurtasun osoz hitz egin, ze ez da iritsi inolako dokumentazio edo argazkirik. Hori bai, jauregi urbanoekin konparatuz landatar jauregiek lurralde zabalagoak izateko aukera izan zuten. Baztanen gainera jauregien jabe zirenei palazioak deitzen zitzairen eta hauek zituzten lurralde pribatu zabalak eta baita abere kopuru handienak. Lurralde pribatuez gain, bailarako lur zati gehiena komunala kontsideratzen da herritarren erabilera eta onurarako. XV. mendean Baztango gizartea hierarkizatua zegoen, palazioanoak, bizilagunak eta “habitantea edo moradoreak” bereiziz. Mailaren arabera onura eta pribilegio batzuk zeukaten, palazioanoek zituzten pribilegio gehienak eta lurralde komunala aprobetxatzeko aukera gehien. Moradoreak aldiz talde kaltetuena zen eta hauek ez zuten lurralde komunalak erabiltzeko eskubiderik. 1440 urtean aldiz, Nafarroako Erreinu zaharreko Comptos Camarak bailarari hidalgia unibertsala aitortu zion, modu honetan biztanle guztiak nobleak kontsideratzera pasa ziren, izaera nobleko lurralde batekoak izateagatik. Gertaera honek, gizartearen “berdintasuna” suposatzen zuten, horrela biztanle guztiek zeukaten auzotasun eskubidea. Eskubide honek pribilegio eta onura asko suposatzen zituen, horien artean lur komunalarren aprobetxamendua. Hala eta guztiz ere, errealitatea izango da, jauregien jabeak izan zirela besteen aurrean zorionekoak.

---

<sup>18</sup> MARTINENA RUIZ, J-J., *Navarra. Castillos, Torres y Palacios, Pamplona*, Gobierno de Navarra, 2008.

<sup>19</sup> ANDUEZA UNANUA, P., Op. cit., 2 orr.

Formalki lau isurialdeko eraikin kubiko bat da. Hiru solairuko bloke sendo bat da eta teilatuko hegalak oso irtenak eta landuak dira. Irudian ikusgarria den moduan, fatxada harri gorritzko harlandua da eta alboko murrak aldiz harlan-gaitzaz daude eginak (luzitua dagoena). Ohikoa den moduan fatxadari aparteko trataera ematen zaio beste eraikinaren atalekin konparatuz gero, ze fatxada zen jendeak ikusten zuen lehen gauza.

Kanpoko estetikari eta trataerari dagokionez, aipatu bezala fatxadak bereganatzen du atentzio guztia. Eraikinaren ardatz zentrala markatzen duen portada dindeldua dago. Klasikotasunaren presentzia dago, orden toskaniarreko bi koloma baitaude eta hauek tamaina handiko ate nagusi eta dotorea aurkezten digute. Taulamendua dekorazio geometrikoz dago osatua, triglifo eta erronboak ikus daitezkeelarik. Bigarren zatian hiru balkoi dindeldu daude, baina erdian dagoenak dekorazio erakargarria eskaintzen du. Dekorazio geometrikoan erabilera dago berriro, baina hemen azpimarratu behar dena frontoi apurtua da, zeinak Baztango armari handi bat babesten duen. Xakeak Baztan sinbolizatzen du eta goialdeko hiru bandak Vergaratarren etxearen armak dira. Horrela, familia noble eta prestigiosoa zela azpimarratzen duen mezua transmititzen da.

Armarriak Baztango ia etxe gehienek fatxadetan agertzen dira<sup>20</sup>, indar sinboliko handiko elementua kontsideratzen zutelako. Baztango armariaren oinarriari buruz hipotesi asko daude, baina horien artean batek 1212n gertatutako Navas de Tolosako bataila garaira eramaten digu. Gerra zelaian baztandarrek erakutsi zuten ausardia eta indarragatik Nafarroako erregea zen Antso VII. Azkarrak xake-taularen itxurako armaria hau eman zien. Oinarriaren inguruko istorioak desberdinak izan daitezke baina errealitatea da Baztango etxetako ikurrik kuttunenetarikoa dela. Jauregi hauetan, Jarolan ikusten den moduan berebiziko garrantzia izango dute, horregatik tamaina handikoak eta landuak izango dira eta zenbaitetan ere fatxadetan bat baino gehiago ezarriko dira (Iruritako Gaston de Iriarte jauregian ikus daitekeen moduan). Armari hauek, eraikina edertzeaz gain, familiaren estatus sozialaren erakuslea dira.

Hirugarren altueran paraleloki jarriak hiru leiho dindeldu daude. Eraikinaren alboetako murrutan ere leiho ugari daude. Beraz, irekiduren handitzea eta ugaritzea

---

<sup>20</sup> Armariaren inguruan interesgarria da PEREZ DE VILLARREAL, V., "Armarria: Heraldica lapidaria baztanesa", *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 51, 1988, 179-234.orr.

ikus daiteke, zeinak modu ordenatu batean antolatzen diren harmonia sentsazioa transmitituz. Honek argiztapenaren eta aireztaduraren garrantzia erakusten du. Leiho, ate eta hegala zurgintza lan bikaina islatzen dute, izan ere, Baztanen kalitate handiko zurginak bazeuden eta hauen lana kontratatzen zuten eraikinen jabeek. Balkoietako balaustradek ere Baztanen arotza bikainen presentzia zegoela erakusten digute.

Aztertu bezala eraikina hiru solairutan banatzen da eta hori fatxadako inposta lerroek argi eta garbi erakusten dute. Hau beste eraikinetan ere ikusgarria da, Erratzuko Apeztegian adibidez. Fatxada honek eta eraikinak osotasunean oihartzun handia izan zuen garaian, bestelako eraikinen eredu bilakatuz. Elizondon kokatzen den bailarako udaletxeko eraikuntzarako oinarri izan zen. Ondoren, XVIII. mendean ere, Elizondon Datue (irud.9) jauregia eraiki zen Jarolaren egitura jarraituz

Barrualdeko distribuzioari dagokionez, ezin da ezer ziurrik esan dokumentazio falta dagoelako eta hauetan sartzeko aukerak ere oso gutxi direlako. Lehenengo pisuan besteekin konparatuz altuagoa dela eta ia leihorik ez duela ikusten da eta horrek animalien presentzia erakusten du. Atea ere handia eta zabala da, gurdiaren sarrera ahalbidetzeko. Atzeko partean hiru arkudun portiko bat dago eta erdian ate bat, seguruenik zaldiek produzitutako zikinkeriak bertatik ateratzeko eta ez sarrera nagusitik. Gurdiaren aterabidea ere izango zen. Beraz, beheko solairua biltegia edo zaldiak edukitzeko espazioa egongo zen eta goiko bi solairuak biztanlearen bizitokia izango ziren. Garaian, abereentzat etxola independente bat ere egongo zen gaur egun kontserbatzen ez dena.

Miguel de Vergarak eraikin dotore eta monumental bat eraiki zuen. Herritar xumearen etxebizitzatik nabarmenki gailentzen den eraikin bat bultzatu zuen bere botere ekonomiko eta bere estatusaren isla zena. Eraikina estilo barrokokoa kontsideratzen da, baina ni ez naiz bereizketa estilistikoetan murgilduko. Miguel de Vergara 1697an hil zen baina testamentuan maiorazgo kolektibo baten fundazioa agindu zuen, jauregia oinarri nagusia izan behar zelarik.

## **6. KONKLUSIOAK**

XVII. mendetik aurrera baztandar talde oparo bat gorteko, goi administrazioko eta finantza errealek karguetan gailendu zen. Posizio horietatik pertsonai horiek ondoko



belaunaldietako kideak negozio familiarretan eta prestigiozko karrera burokratikoetan, militarretan eta eklesiastikoetan ezarri zituzten, Penintsulan zehar eta baita Indietan ere. Jatorrizko baztandar eta hauen semeen aukerak are gehiago hobetu ziren dinastia Borbonikoaren ezarpenarekin. Izan ere, XVIII. mendea urrezko mendea izan zen bailarentzat, Julio Caro Barojaren *Hora Navarra del XVIII* bibliografian antzean daitekeen moduan. Oparotasuna hain handia izan zen *Hora Navarra del siglo XVIII* horren barruan *Hora Baztanesa* bat bereiz zitekeela<sup>21</sup>. Beraz, emigrazio kolektibo honen arrazoiak ez ziren soilik negatiboak izan. Mugimendu bizi honek ez du soilik errekurtsoen gabezia eta txirotasuna islatzen. Kasu batzuetan, nolabaiteko maila ekonomiko bat antzematen da, baldintza onetan irteera edo abiatze bat egiteko aukera ahalbidetuz. Egoera honen ondorioz, prestigio eta aberastasun handiko pertsonaien agerpena emango da. Talde hauen artean ere desberdintasunak egongo dira, denak ez baitziren zorion berekoak izan, horrela kasuan kasuko lorpen ekonomiko desberdinak lortuz. Baina denak helburu berdina izan zuten; beraien sortetxeko etxebizitza transformatzea alegia.

Lurralde honetan, etxebizitza arkitektura aberats bat kontzentratzen da eta hauen artean jauregi kopuru garrantzitsu bat gailentzen da. Egoera honek harreman estua dauka XVII eta XVIII. mendeetan emandako fenomeno sozioekonomikoarekin. Kanpo lurraldeetan ezarritako baztandar hauen aberastasunaren iristeak lekuko familien gailentze ekonomikoa eta soziala eragiteaz gain, Baztan patrimonio artistiko bereizgarri batez hornitu zuen. Goi-mailako gizarte honek bere boterearen seinale gisa, donazioak egin zituen herriko parrokiei, eraikuntza urbanistikoetan laguntza eskaini zuen eta interesgarriena dena, bere *habitazioarako* espazio arkitektoniko distiratsuak eraiki zituen.

Arkitektura honen baitan, bi bide jarraitu ziren. Alde batetik, lekuko arkitektura popular eta tradizionalaren bidea jarraituz beraien jatorrizko etxeak zaharberritu zituztenak eta bestetik, bide berritzaile bat hartzeko erabakia hartu zutenak, arkitektura kultuaren esparrura iritsiz. Hauek gutxiengoak dira, baina ikuslearen atentzioa bereganatzen duten jauregi burutuena dira. Etxebizitza arkitekturaren eraldatze prozesu bat ematen da.

---

<sup>21</sup> CASTELLANO DE GASTÓN, G., *Los Gastón de Iriarte; trayectoria de una casa baztanesa (siglos XVI-XIX)*, s.l., Ediciones Eunat, 2007, 36. orr.

Sorterriko etxea, tradizionaliki familiaren jatorrizko nukleoa eta taldearen elementu elkartzailea kontsideratu izan da Baztango bailaran. Kasu askotan bildutako aberastasunaren bidez saritua izan da, planta berriko eraikinen eraikuntza eta beste askoren guztizko berriztapena eta zaharberritzea suposatuz. Honek, bailaran jarduera konstruktibo bizi bat ematea eragin zuen. Baztango gizartearentzat, oinordeko bakarraren sisteman eta auzotasun eskubidean oinarritutakoa, oinetxeak aparteko balorea zeukan. Horregatik, XVII eta XVIII. mende hauetan sortuko den etxebizitza berri hau eskuratutako boterearen sinbolo agerikoenean bilakatu behar zen. Horrela, denek frogatu zezaketen familiako kideek lortutako garaipen ekonomiko eta soziala. Gainera, eraikin hauek belaunaldiz belaunaldi bizirik irauteko gaitasuna zeukaten, leinuaren garrantzia aldarrikatuz. Beraz, familiaren bilgune bereiztezina izateaz gain, gizartearen aurreko erakusleihu nabarmen bat da. Binomio bereiztezin baten aurrean aurkituko ginateke.


Binomio honen irudikapena jauregi hauetan formalki gauzatu zen, estetika berri eta fin bat aurkeztuz. Elementu kultu hauetan biluztasun dekoratiboa emango da, baretasuna eta dotoretasuna lortuz. Erosotasun nahiak eta giza erabilera berriek espazio arrazional, funtzional eta eroso berri bat garatzea eragingo dute. Etxebizitza, ondarearen entitate konplexu batean bilakatzen da, ondasun material eta immaterialen (ohorea, prestigioa ...) eramaile izanik.

Jauregi bat bere osotasunean ulertzeko, bertako biztanlea, bere bizimodua eta hau baldintzatuko duten zirkunstantziak aztertu behar dira. Jauregi tipologia honen bereizketan, identifikazio soziala, funtzioa eta lengoai arkitektonikoa dira kontuan hartutako irizpide garrantzitsuenak. Hauen artean elkar erlazioa dago, bata besteagan eragin zuzena edukiko duelarik eta honek XVII eta XVIII. mendeetan emango den eraikin berri baten sorrera bultzatuko du. Azken finean, agertuko de goi-mailako pertsonai berriak tradizioetik alde egiten duen *habitaziorako* jauregi berri bat sortuko du.

## **7.IRUDIAK**

## Irudi 1. Baztango mapa eta jauregien zerrenda

Herria	Eraikina
ALMANDOZ	GALTZAGA JAUREGIA (1)
BERROETA	Ez dago
ANIZ	Ez dago
ZIGA	EGOZKUE JAUREGIA (2)
ORONoz-MUGAIRE	Ez dago
ARRAIOZ	Ez dago
IRURITA	GASTON IRIARTE JAUREGIA JAUREGI ZURIA (4)
GARTZAIN	Ez dago
LEKARoz	OHARRIZKO JAUREGIA (5)
ELIZONDO	DATUE JAUREGIA (6) ISTEKONEA JAUREGIA (7) AROTZARENA JAUREGIA (8) ARIZKUNENEA JAUREGIA
ELBETEA	ASKOA JAUREGIA (10) JAROLA JAUREGIA (11)
ARIZKUN	ITURRALDE JAUREGIA (12) LAMIARRITA JAUREGIA (13)
ERRATZU	APEZTEGIA JAUREGIA (14) GASTON IRIARTE JAUREGIA IÑARBILGO JAUREGIA (16)
AZPILKUETA	Ez dago
AMAIUR	BORDA JAUREGIA (17)



Irudi 2. Dorrea



Udaletxeko web orri ofizialetik,  
<http://www.baztan.eus/es/>  
(azken bisitaldia 2015.06.23)

Irudi 3. Arizkunenea



Egileak berak egina

Irudi 4. Arretxea



Egileak berak egina

Irudi 5. Apeztegia



Egileak berak egina

Irudi 6. Jauregizuria



Egileak berak egina

Irudi 7. Erratzuko Gaston Iriarte



Egileak berak egina

Irudi 8. Iruritako Gaston Iriarte



Egileak berak egina

Irudi 9. Datue



Udaletxeko web orri ofizialetik,  
<http://www.baztan.eus/es/>  
(azken bisitaldia 2015.06.23)

Irudi 10. Jarola



Egileak berak egina

## 8. BIBLIOGRAFIA

ANDUEZA UNANUA, M.P., “La casa, la familia y los negocios en el siglo XVIII. Los Borda de Maya (Baztan)”, *Príncipe de Viana*, 66, (2005), 353-392orr.

AABB. *El arte del Barroco en Navarra*, Pamplona, Gobierno de Navarra, 2014.

ANDUEZA UNANUA,P., *La arquitectura señorial de Pamplona en el siglo XVIII, familias, urbanismo y ciudad*, Pamplona, Gobierno de Navarra, 2004.

ARIZCUN CELA, A., *Economía y sociedad en un Valle pirenaico del Antiguo Régimen Baztán 1600-1841*, Pamplona, Gobierno de Navarra, 1988.

AZANZA LOPEZ, J.J., “Casa, familia, heredad. La colección fotográfica de caserios vascos de Fr. Pedro de Madrid (1912)” , *Revista de Dialectología y tradiciones populares*, vol. LXVIII, 2, (2013),385-422.orr.

CARO BAROJA, J., *La casa en Navarra*, Pamplona, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra, 1982.

.- *La Hora Navarra del XVIII (personas, familias, negocios e ideas)*, Pamplona, Comunidad Foral de Navarra, 1985.

.- “Sobre la casa, su estructura y sus funciones”, *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 1 (1969), 35-66 orr.

CASTELLANO DE GASTÓN, G., *Trayectoria de una casa baztanesa (Siglos XVI-XIX)*, s.l., Ediciones Eunete, 2007.

ECHEVERRÍA GOÑI, P.L. eta FERNÁNDEZ GRACIA, R., *Ibaiak eta Haranak. Guía del patrimonio histórico-artístico y paisajístico*, Vitoria, Etor, 1991.

GARCIA GAINZA, M.C., (zuz.), *El arte en Navarra*, Pamplona,1994.

.- *Catalogo monumental de navarra, merindad de pamplona*, vol.V\*\*, Pamplona, 1996.

GARCIA GAINZA, M.C, FERNÁNDEZ GRACIA, R. (kor.), *Casas Señoriales y Palacios de Navarra*, Pamplona, Universidad de Navarra, 2009.

GOYENECHÉ, J., *Executoria de la nobleza antigüedad y blasones del valle del Baztan*, Madrid, 1998 (jat. edz. 1685).

IGOA MORENO, J.M., *Arquitectura popular vasca: (Baztan-Bidasoa)*, Irun, 2008.

IMÍZCOZ, J.M.(zuz.), *Redes familiares y patronazgo: Aproximación al entramado social del País Vasco y Navarra en el Antiguo Régimen (siglos XV-XIX)*, Universidad del País Vasco- Euskal Herriko Unibertsitatea, 2001.

MARTINENA RUIZ, J.J., *Navarra. Castillos y palacios*, Pamplona, 1980.

*.-Navarra. Castillos, torres y palacios*, Pamplona, 2008.

OTONDO Y DUFURRENA, A., *Diccionario histórico biográfico del valle de Baztán (Navarra)*, Pamplona, Gobierno de Navarra, 2002.

PEREZ DE VILLARREAL, V., “Armarria: Heraldica lapidaria baztanesa”, *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, Gobierno de Navarra, 1988, 179-234.orr

PEVSNER, N., *Historia de las Tipologías arquitectónicas*, Barcelona, GG, 1979.